

KLIMARI, INGURUMENARI
ETA NATURARI LOTUTAKO
ARRISKUEI BURUZKO TXOSTENA

2024ko otsaila

TCFD
TNFD



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA

0. SARRERA ETA TXOSTENAREN DESKRIPZIO OROKORRA.....	2
0.1 SARRERA	3
TXOSTEN HONEN HELBURUA	3
HARTZAILEAK.....	4
TXOSTENAREN ESTALDURA	4
0.2 TXOSTENAREN DESKRIPZIO OROKORRA	5
1. GOBERNANTZA.....	6
1.1 KONTSEILU ERREKTOREA.....	7
1.2 ZUZENDARITZA	9
1.2.1 JASANGARRITASUN BATZORDEA.....	9
1.2.2 JASANGARRITASUN TALDEA	10
1.2.3 JASANGARRITASUN BULEGOA.....	10
1.3 DEFENTSA-LERROAK	11
2. ESTRATEGIA.....	12
2.1 ARRISKUAK ETA AUKERAK	13
2.1.1 ARRISKUAK.....	15
2.1.2 AUKERAK.....	20
2.2 NEGOZIOAREN, ESTRATEGIAREN ETA FINANTZA-PLANGINTZAREN GAINEKO INPAKTUA	21
2.2.1. Inpaktuen identifikazioa eta kuantifikazioa.....	21
2.2.2 Inpaktuen kudeaketa	22
DATU-BILKETA	23
PLANTILLAREN PRESTAKUNTZA	23
PRODUKTUEN KATALOGOA	23
2.3 AGERTOKIEN ANALISIA ETA ERRESILIENTZIA-ESTRATEGIA	25
2.3.1 Agertokiaren analisia.....	25
2.3.2 Erresilientzia-estrategia	25
3. KLIMA- ETA INGURUMEN-ARRISKUEN KUDEAKETA.....	27
3.1 Arriskuak identifikatu eta ebaluatze prozesua	28
3.2 Klima- eta natura-arriskuak kudeatzeko prozesua	29
3.3 Integrazioa arriskuaren kudeaketa orokorrean	31
4. METRIKAK ETA HELBURUAK	32
4.1 METRIKAK.....	33
4.2 KARBONO-AZTARNA	34
4.3. HELBURUAK	35
5. ETORKIZUNERAKO PLANAK ETA KLIMA-ALDAKETARI LOTUTAKO EKIMENAK	37
• 5.1 ETORKIZUNERAKO PLANAK	38
• 5.2 KLIMARI LOTUTAKO EKIMENAK	39



0.

**SARRERA ETA
TXOSTENAREN
DESKRIPZIO
OROKORRA**

0.1 SARRERA

Gizakiaren jarduna ingurumena aldatzen ari da, inoiz ez bezalako eraginez eta neurrian. Zientzialarien esanetan, aldaketa hori geldieztina da dagoeneko; hortaz, berori murriztea eta nolabait kontrolpean izatea da egiten ari diren ahaleginen eta finkatzen ari diren helburuen xedea. Temperatura bereziki altuak, hondamena dakarten ekaitzak, idorteak, basamortutzea, espezie- eta biodibertsitate-galera, euri-ereduen aldaketak, itsas mailaren igoera, luraren produktibitate-galera, suteak eta uholdeak dira aurrez aurre dugun klima-aldaketa horren ondorioetako batzuk, eta gero eta azkarrago ari dira agertzen, gainera.

Finantza-sektorea, sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren funtsezko tresna den aldetik, aldaketa horren eraginpean egongo da, bi bide hauetatik batez ere:

- Batetik, klima-aldaketaren eta ingurumen-narriaduraren inpaktuak jada nabaritzen ari dira banku-jardunaren arriskueta, bermeen balioetan eta finantzaketen alboko elementuetan edo inbertsioen errentagarritasunean. Inpaktu horiek larriagotu egingo dira denborak aurrera egin ahala.
- Era berean, ingurumen-egoera berrira eta ekonomia jasangarriago eta deskarbonizatu batera egokitzeak eraldatu egingo du eredu ekonomikoa, eta finantza-ondorio nabarmenak izango ditu, lotutako arriskuak barne.

TXOSTEN HONEN HELBURUA

TCFD (Task Force on Climate-Related Financial Disclosures) Finantza Egonkortasuneko Kontseiluaren (Financial Stability Board; FSB, ingelesezko siglak) lantalde bat da, zeinaren eginkizuna baita klima-aldaketari lotutako arrisku fisikoak eta trantsizioarenak aztertzea. Haren lana oso garrantzitsua da enpresek ondo ebalua eta administra ditzaten klimari lotutako inguruabarrak, eta klima-aldaketak haien antolakundeetan eragiten dituen arriskuak murrizteko gai izan daitezen.

2017ko ekainean, TCFD taldeak zenbait gomendio argitaratu zituen inbertitzaileek hobeto ulertzaten klimak eragindako arriskuek enpresetan duten inpaktua, eta ekonomian klima-aldaketaren ondoriozko finantza-shockaren arriskua murrizteko. Informazio hori funtsezkoa da inbertitzaileek erabakirik helduenak har ditzaten beren inbertsioen inguruan, eta epe labur, ertain eta luzerako eraginak ebalua ditzaten.

LABORAL Kutxak erabaki du hirugarren txosten hau TCFDren gomendioen arabera egitea, gardentasunaren eta aurrean ditugun erronka handiei aurre egiteko konpromisoaren adierazle gisa. Azaldu den bezala, LABORAL Kutxak ibilbide luzea du ingurumenarekiko konpromisoa dela eta. Hala ere, gaur egun, ezinbestekoa da esfortzua areagotzea, oraingo eredu ekonomikoa aldatzen laguntzeko, jasangarriago baterako bidean.

Aldi berean, finantza-erakundea den aldetik, ezinbestekoa da ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketarenak integratzea, zuzeneko arriskuek eta trantsizio-arriskuek ekonomian duten inpaktuaren garrantzia kontuan hartuta.

Bestalde, TNFDrako lehen hurbilketa egin nahi izan dugu txosten honetan. Munduko produkzio ekonomikoaren erdia baino gehiago naturaren mende dago, hein handian. Hala ere, gaur egungo enpresa, inbertitzaile eta mailegu-emailerik gehienek ez dituzte kontuan hartzen

naturari lotutako arriskuak eta aukerak euren erabakietan, ezta LABORAL Kutxak ere. Arazo horri erantzuteko sortu zen Naturarekin lotutako finantza-dibulgazioei buruzko lantaldea (Taskforce on Nature-related Financial Disclosures – TNFD). Izan ere, gero eta nabarmenagoa da finantza-eta merkataritza-erabakietan natura eta biodibertsitatea kontuan hartzeko beharra.

Merkatuak zuzendutako ekimen globala da TNFD, eta helburu hau du: arriskuak ezagutarazi eta kudeatzeko esparru bat garatu eta ematea, erakundeek naturaren eboluzioari lotutako arriskuen berri eman eta horien inguruan jardun dezaten. Azken helburua da finantza-fluxu globaletan aldaketa bat bultzatzea, naturaren emaitza negatiboetatik urrunduz eta naturaren emaitza positiboetara hurbilduz. Enpresak naturarekin eta biodibertsitatearekin duen erlazioak bere negozioan duen eraginari buruz eman beharreko informazioa deskribatzen du TNFD esparruak. Adibidez, enpresa hori nola ari den prestatzen epe laburreko, ertaineko eta luzeko aldaketetarako, behar izanez gero.

Esan bezala, arrisku horietarako lehen hurbilketa bat egin nahi dugu, jakin baitakigu urria dela arrisku horien kudeaketari eta sortzen diren mendekotasunei buruzko ezagutza. Datozen ekitaldietan esparru horretan sakontzeko asmoa dugu, LEAP ikuspegia erabiliz —ingelesezko sigletan, *locate, evaluate, assess and prepare* (aurkitu, ebaluatu, aztertu eta prestatu)— eta mendekotasunak, inpaktuak, arriskuak eta aukerak jorratuz —ingelesezko sigletan, *DIRO: dependencies, impacts, risks and opportunities*—.

Ingurumen-ziurtagiria lortu zuen lehen finantza-erakundea izan zen Caja Laboral, 2001ean eskuratu baitzuen ISO 14001 ziurtagiria bere jarduerarako. Orobat, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sortu eta sinatu zituzten 130 bankuetako bat izan zen Entitatea, 2019an. Ildo beretik, TNFD txostenerako lehen hurbilketa egin du orain LABORAL Kutxak. Dena dela, esparru hori ezarri berria dela ikusirik, esplorazio-izaera du lehen TNFD txosten honek, eta hurrengo ekitaldietan hobetzeko asmoa dugu.

HARTZAILEAK

Txosten honen bidez, LABORAL Kutxak gardentasun-ariketa bat egin nahi du, eta klima- zein natura-arriskuei aurre egiteko politika eta arrisku horien kudeaketa ezagutzera eman, bezeroei, langileei, erregulatzailerei eta gizarteari, oro har.

Halaber, klima- eta natura-arriskuei buruzko txosten hau LABORAL Kutxaren beste aurrerapauso bat da jasangarritasunarekin duen konpromisoan, eta, hala, bat egiten du 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuekin eta Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin.

TXOSTENAREN ESTALDURA

Txostena egiteko, *TCFD report playbook* eskuliburua hartu da oinarritzat, *UNEP-FI* ekimenak *Ernst & Young* eta *Institute of International Finance (IIF)* erakundeekin batera egindakoa. Eskuliburu horri esker, gida bera erabiltzen duten beste erakunde batzuen txostenekin aldera daiteke txostena, eta aurreko urteetako informazioa zabaldu eta eguneratu egin daiteke, bai eta eremu handiago batera eraman ere.

TNFDari dagokionez, oraindik ez dago esparru hori ezartzen laguntzeko antzeko gidarik, berri-berria baita. Beraz, eta lehen txostena denez, TCFDarenaren antzeko ikuspegiari jarraitu diogu esparruaren gomendioak betetzeko.

Txosten honek osatu egiten ditu LABORAL Kutxak jasangarritasuna edo ESG alderdiak jorratzeko argitaratutako beste dokumentu publiko batzuk, hala nola Jasangarritasun Txostena, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak edo Zuhurtziazko Garrantziko Txostena.

0.2 TXOSTENAREN DESKRIPZIO OROKORRA

GOBERNANTZA	ESTRATEGIA	ARRISKUAREN KUDEAKETA	METRIKAK ETA HELBURUAK
a. Kontseilu Errektorea Taldearen gobernu-organo goren da, eta berorren estrategia definitzeaz eta hartzen dituen arriskuak kontrolatzeaz eta ikuskatzeaz arduratzen da. Beraz, ingurumenari, klima-aldaketa eta ingurumen-narriadurari lotutako arriskuak kudeatzeko arduradun nagusia da. Jasangarritasunaren, klima-aldaketa eta naturaren arloko arriskuei buruzko alderdi espezifikoak, haien integrazioa eta analisia Kontseilu Errektorearen mendeko Arrisku Batzordearen eginkizunak dira.	a. Ingurumenari, klimari eta naturari lotutako faktore edo arriskuak deskribatu dira. Bi motatako faktoreak dira: fisikoak eta trantsizioak. Arrisku fisikoaren barruan, kronikoak eta akutuak ditugu. Trantsizioaren artean, berri, politikoak, ospeari lotutakoak eta teknologikoak bereizten dira.	a. Bero-mapa izan da 2023an egindako lan nagusia, zeinak ESG arriskuak erakusten dituen jarduera-sektoreka. Behin sektore ekonomikoetako eta bizitegi-merkataritza-etxebizitzetako arriskuak definituta, bi bidetatik kudeatzen hasi dira.	a. Hiru ESG adierazle definitu dira Arriskuarekiko Grinaren Esparruan (2024tik aurrera lau izango dira). Finantzaketa jasangarriko esparru bat finkatu da, ESG ezaugarriak dituzten eragiketak sailkatzeko. GAR (Green Asset Ratio) ratioa kalkulatu da.
b. 2022an, jasangarritasunaren gobernantza ezarri zen eta erakunde hauek eratu: Jasangarritasun Batzordea, Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten pertsonekin; Jasangarritasun Taldea, ibilbide-orria prestatzeko, eta Jasangarritasun Bulegoa, jasangarritasunaren arloko ekimenak sustatzeko eta koordinatzeko. Hiru hilean behin, gutxienez, informazioa ematen zaio Kontseilu Errektoreari, Taldearen arriskuak eta estrategia orokorra kontrolatzearen arduradun goren den aldetik.	b. Faktore horiek berekin dakartzate arriskuak, mendekotasunak eta aukerak. Arriskuei dagokienez, sektore ekonomiko batzuetan eta bizitegi-zein merkataritza eraikinetan izan dezakete eragina. Sektore hauek dute arriskuarekiko esposiziorik handiena: energiak, petrolioak eta gasak, aireko eta itsasoko garraioak eta salgaien lurreko garraioak.	b. Alde batetik, Kapital eta Likidezia Egokitzeko Txostenaren (KLETaren) kalkuluari erantsi zaizkio faktore horiek.	b. 1. irismena: 129 2. irismena: 0 3. irismena: 3.461 Isurtzeak, guztira (CO₂t): 3.591 3. irismenteko isurtze finantziatuak: 1.777.165
	c. Aukeren artean, sektore hauek nabarmendu daitezke: energia berriztagarriak, garraio garbia, etxebizitza berdea eta energia-efizientzia, nekazaritza ekologikoa eta biodibertsitatea, eta ekonomia zirkularra.	c. Bestalde, arrisku horiekin lotutako adierazleak Arriskuarekiko Grinaren Esparruari erantsi zaizkio. Gainera, mugak ezarri dira adierazle horietarako.	c. 2022-2024rako helburu estrategikoak: • % 10 murriztea CO₂ isurtzeak. • % 50 murriztea paper-kontsumoa. • % 40ra iristea hurbileko enpresa hornitzaileei egindako erosketak. Jasangarritasuna Kudeatzeko Plan bat dago, eta 2024ko Ingurumen Plana, konpromiso, ekintza eta helburu zehatzekin.



GOBERNANTZA

Jasangarritasun-estrategiak alderdi hauek hartzen ditu, besteak beste:

- Marka eta estrategia (*Green ambition*).
- Arriskuak eta kapitala kudeatzeko eredua.
- Bezero eta inbertitzaileekiko komunikazio-politika.
- Negozio-prozesuen diseinu berria.
- Inbertitzeko erabakiak.
- Produktuen eta zerbitzuen katalogoa: lehendik daudenen egokitzapena eta berriak.
- Antolaketa-eredua (printzipio eta eredu operatibo berriei buruzko prestakuntza eta halakoen barneratzea).

Kontseilu Errektorea izango da arlo honetako araudiak ezarritako betebeharrak eta Jasangarritasun Politika betetzen dela bermatu behar duen arduradun nagusia. Halaber, beharrezko neurriak hartuko ditu Jasangarritasun Politika zuzen aplikatzen ez denean. Horretarako, behar beste baliabide eman beharko dizkio Entitateari jasangarritasunaren arloko betebeharrak bete ditzan. Kontseilu Errektoreak Entitateko beste eremuen informazioa izango du, une oro, betetzeari eragiten dion edozein inguruabar dela eta.

Estrategia, politikak, arauetan eskatutakoa, ikuskapen-aurreikuspenak eta urteko plana betetzen direla bermatzeko, deskarguak jasoko ditu urtean hiru aldiz gutxienez, eta Jasangarritasun Plana onetsiko du Gestio Planaren barruan.

Kontseilu Errektoreak eginkizun eta ardura hauek ditu jasangarritasunari dagokionez:

- Jasangarritasun-estrategia eta arriskuarekiko grina definitzea.
- LABORAL Kutxak jasangarritasunaren arloan izan behar duen kokapen estrategikoa kudeatzea.
- Jasangarritasunaren arloan garatutako politika berriak onestea, baita, jasangarritasuna sartzeko, LABORAL Kutxan aldatutako politikak ere.
- Jasangarritasunerako gobernantzako egitura aldatzea (batzordeak sortu, eginkizunak eta erantzukizunak banatu).
- Jasangarritasunaren arloko ibilbide-orriaren ezarpena ikuskatzea.
- Jasangarritasunaren, klimaren eta naturaren ondoriozko arriskuak identifikatzeko, neurtzeko eta kudeatzeko barneko kontrolak ikuskatzea.
- Informazio ez-finantzarioaren txostenak ikuskatzea, eta Batzar Nagusiaren eskura jartzea, gainerako urteko kontuekin batera, onar ditzan.
- Ziurtagiriak eta kidegoak kudeatzea eta haiei buruzko erabakiak hartzea.
- Kontseiluak jasangarritasunarekin duen konpromisoaren berri ematea, barruan zein kanpoan, eta lortutako aurrerapenei buruzko informazio gardena ematea.

Jasangarritasunaren, klima-aldaketaren eta naturaren arloko arriskuei buruzko alderdi espezifikoak, haien integrazioa eta analisia Kontseilu Errektorearen mendeko Arrisku Batzordearen eginkizunak dira. Jasangarritasunaren arloko arriskuak jarduketa-eremu berria dira, eta, gainera, zenbait ezaugarri bereizgarri dituzte; hori dela eta, oso zaila da halakoak baloratzea. Taldearen asmoa da haiei buruzko ezagutza pixkanaka-pixkanaka hobetzea, eta behar bezala txertatzea.

Txosten honetan, klima- eta ingurumen-arriskuen inguruan jasotako prestakuntza azaltzen da.

Klima- eta natura-arriskuen inguruko esperientziari dagokionez, 2024ko urtariletik Kontseilu Errektoreko presidente denak Jasangarritasun Bulegoaren lana ikuskatzeko erantzukizuna izan zuen, izendatu zuten arte. Orobat, 2023an, gai horretan esperientzia eta ezagutza handiko pertsona bat sartu da Kontseilu Errektorean.

1.2 ZUZENDARITZA

1.2.1 JASANGARRITASUN BATZORDEA

Jasangarritasun Batzordea LABORAL Kutxako Zuzendaritza Kontseiluaren organo espezializatu bat da eta, besteak beste, jasangarritasun-estrategia bat ezartzeko urratsak ematea du eginkizun.

Batzorde hori arduratzen da Kontseilu Errektoreak zehaztutako estrategia eta kudeaketa-planak gauzatzen direla bermatzeaz. Horretarako, abian dauden ekintzen jarraipena egingo du eta Entitatea estrategian ezarritako finantza jasangarrien posizionamendura egokitzeko neurriak aplikatuko ditu.

Jasangarritasun Batzordea hauek osatzen dute: LABORAL Kutxako organo betearazle gorena den Zuzendaritza Kontseiluko kide guztiek eta Jasangarritasun Bulegoko bi kidek. Horiez gainera, unean-unean jasangarritasunarekin zerikusia duten alderdien zuzeneko kudeaketan parte hartzen duten Entitateko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute batzordean, gonbidatu gisa.

Hauek dira Jasangarritasun Batzordearen jarduketa-eremu nagusiak:

- LABORAL Kutxaren jasangarritasun-estrategia proposatzea Kontseilu Errektoreari.
- LABORAL Kutxaren jardueran jasangarritasuna txertatzeko erabakitako ibilbide-orria ezartzea.
- Batzordeen eta areen arteko koordinazioa bideratzea, ibilbide-orriaren benetako garapena lortzeko.
- Ibilbide-orrian adierazitako eremuei lotutako mugariak eta xedeak ezartzea, errendimenduari buruzko funtsezko adierazleak zehaztuz eta horien jarraipena eginez.
- Loturak ezartzea Jasangarritasun Politikaren eta gertaeren jarraipenaren zein merkatujoeren artean.
- Ekintza-planak egitea.
- Kanpoko mehatxu, aukera eta gertaera garrantzitsuen jarraipena egitea.
- Jasangarritasunaren arloko merkatu-jardunbiderik onenen jarraipena egitea.
- LABORAL Kutxak bere interes-taldeei helarazi nahi dien mezuari ondoen egokitzen zaizkion nazioarteko ekimen eta estandarrak identifikatzea, baita haietan jarduteko proposamena ere.
- Jasangarritasunaren eta LABORAL Kutxaren jardueraren arloan etorkizunean aplikatzekoak izan daitezkeen arau-eskakizunak identifikatzea eta haiek betetzeko proposamena garatzea.
- Jasangarritasuna txertatzeko prozesuan etengabeko hobekuntza bultzatzea.
- LABORAL Kutxarentzako garapen-aukera berriak proposatzea, finantza- eta aseguru-jarduerari lotutako jasangarritasunaren arloan.
- Jasangarritasunaren arloko politikak aldatzeko edo gainbegiratzeko proposamena egitea.
- Kontseilu Errektoreari informatutako orientabideak ematea arlo horretan planteatutako edozein gairi buruz.

Urtean 3 aldiz gutxienez egiten ditu ohiko bilkurak. Dena den, ohiz kanpoko bilkurak ere egin ditzake, beharrezkotzat jotzen direnean.

Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk) txostenak jaso ahal izango ditu Jasangarritasun Bulegotik, behar izanez gero, Zuzendaritza Kontseiluaren mendeko eta arriskuen inguruko gaietan espezializatutako batzordea den aldetik.

1.2.2 JASANGARRITASUN TALDEA

Jasangarritasun Taldeak (JTak) xede hau du: epe laburrean jasangarritasuna LABORAL Kutxaren finantza-jardueran txertatzeko ibilbide-orria garatzea. Haren ardura da Kontseilu Errektoreak onetsitako eta Jasangarritasun Batzordeak betearazitako Jasangarritasun Politika eguneroko jardunean ezartzea.

LABORAL Kutxa osatzen duten areetako (Negozioa, Arriskuen Euskarria, Arriskuaren Kontrol Globala eta Komunikazioa) arduradunak eta Jasangarritasun Bulegokoak dira talde horretako kide.

Eginkizun hauek dagozkio:

- Jasangarritasun-estrategiaren barruan abiarazi beharreko ekintza berriak planteatuko ditu, baita Gestio Planeko lerroak ere.
- Jasangarritasun Taldearen bileretan, Jasangarritasun Planaren ezartze-prozesuan lortutako aurrerapenen deskargua egingo du.
- Jasangarritasun Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharreko adierazleak edo KPIak (Key Performance Indicator) emango ditu.
- Jasangarritasun Batzordeak eskuordetuta, behar diren ekintzak gauzatzeko ardura izango du.
- Berariazko lantaldeak osatuko dira zeharkako proiektuak martxan jartzeko.

Jasangarritasuna Taldea urtean 3 aldiz bilduko da, gutxienez.

1.2.3 JASANGARRITASUN BULEGOA

Jasangarritasun Bulegoa sortu da, LABORAL Kutxa Taldearen barruan jasangarritasunaren arloko ekimenak sustatzeko eta koordinatzeko. Funtzio hauek ditu:

- Jasangarritasunaren arloko ekimenei ikuspegi orokorra, koherentzia eta zentzua ematea, LABORAL Kutxaren estrategiarekin bat.
- Urteko Gestio Planaren eta epe ertainerako Plan Zuzentzailearen ildo nagusiak zehazten laguntzea.
- Ekintza-lerro eta helburu berriak proposatzea.
- Lantaldea, Jasangarritasun Taldea eta ibilbide-orriaren eta urteko Gestio Planaren ezarpena dinamizatu eta koordinatzea, bai eta horien jarraipena egitea ere.
- Area guztiei zerbitzua eta laguntza ematea eta sentsibilizazioa lantzea, ezarritako helburuak lortzeko eta politika, prozesu, produktu eta zerbitzuetan jasangarritasuna zeharka txertatzeko.
- Arriskuen Areari laguntzea jasangarritasun- eta natura-arriskuen kontrola eta jarraipena egiten.
- Jasangarritasun Batzordeko idazkaritza teknikoaz arduratzea.
- Jasangarritasunari lotutako barne- eta kanpo-elkarrizketak gauzatzea.
- Jasangarritasunaren dibulgazioa/txostena egitea, eta horri lotutako barne-komunikazioaz arduratzea.
- Jasangarritasunaren arloko prospekzioaz eta zaintzaz arduratzea.

1.3 DEFENTSA-LERROAK

Arrisku horiek kudeatu eta kontrolatzeko antolamenduaren eskema hiru babes-lerrotan oinarritzen da. Lerro horietan, ardura duten areek ingurumenaren, klimaren eta jasangarritasunaren arloko arriskuak kudeatzen dituzte, erantzukizun bereizien ikuspegitik; hauek dira lerroak:

- Lehen leroa. Ardura duten areak eta Jasangarritasun Bulegoa, koordinazioa eta aholkularitza eginez.
- Bigarren leroa.
 - Arriskuaren Kontrol Globala, arriskuen integrazioari dagokionez.
 - Araudia Betearaztea, legea eta hartutako konpromisoak betetzen direla bermatzeko.
- Hirugarren leroa. Barne Ikuskaritza.

1.4 PIZGARRIEN EGITURA

LABORAL Kutxako kide guztiek, baita Zuzendaritza Kontseiluak ere, jasangarritasunaren arloko helburuak izan dituzte, 2023an, ordainsari aldakorrari lotuta. Helburuok zerikusia dute Jasangarritasuna Kudeatzeko Planean ezarritako xedeak lortzearekin, jasangarritasunaren eta klima-alaketaren arloko arriskuak txertatzeari lotutako xedeak barne.

- Paperaren kontsumoa % 25 jaitea.
- Kontsumo elektrikoa % 5 murriztea.
- Eragiketen karbono-aztarna % 5 txikitzea.

Kontseilu Errektoreko kideek dieten bidez soilik jasotzen dute ordainsaria egiten duten lanagatik, eta, beraz, ez dago loturarik lan horren eta klima- eta natura-arriskuen kudeaketaren artean.



2.

ESTRATEGIA

Klima-aldaketa eta ingurumen-narriadura geldiarazteko eta eredu ekonomiko jasagarria ezartzeko bidean aurrera egiteko behar diren neurriak abian jartzea arriskuak eta aukerak sortzen ari da; arrisku eta aukera horiek ikuskatzaileen, erregulatzaileen, banku zentralen eta beste interes-talde batzuen arreta erakarri dute. Horregatik, batzuk eta besteak ingurumen-jasagarritasunari lotutako arriskuen eta finantza-aukeren analisia sartzen ari dira beren lan-agendetan. Gainera, agerian geratu da jasagarritasunaren ondoriozko erronkek inoiz ez bezalako aldaketak dakartzatela erakunde guztientzat, estandar berrietara egokitzeko.

Arlo horretan, eraldaketa horren jakitun, LABORAL Kutxak ere aztertu ditu klima-aldaketak eta ekonomia jasagarriarako trantsizioak eragindako arriskuak eta aukerak.

2.1 ARRISKUAK ETA AUKERAK

Badira klima-aldaketari eta ingurumen-narriadurari lotutako arrisku batzuk. Bi arrisku-mota bereizten dira: fisikoak eta trantsizioak.

Jarraian, sakonago azalduko dira LABORAL Kutxak aurre egin beharreko faktore fisikoak edo trantsizioak. Ondoren, faktore horien analisisian oinarrituta, haien ondoriozko aukerak edo arriskuak dituzten sektoreak zein diren adieraziko da.

Faktoreok epemuga desberdinak dituzte, kontuan hartuta noiz espero den haietako bakoitza gauzatzea. Analisi horren ondoreotarako, zenbait epe ezarri dira: epe laburra, 0-1 urte; epe ertaina, 2-5 urte, eta epe luzea, 5 urte baino gehiago. Horrenbestez, ziurtatzeko moduan gaude:

- Bai arriskuak bai aukerak nabarmenagoak izango dira epe ertainera eta, batez ere, epe luzera.
- Epe laburrera, finantza-inpaktu zenbatetsia mugatua izango dela dirudi, baina baliteke sektore batzuetan garrantzitsua izatea jada.

ARRISKU FISIKOAK

Hondamendi meteorologiko eta naturalek eragindakoak dira, dela klima-aldaketaren ondorioengatik edo biodibertsitate-galerarengatik, dela beste edozein arrazoiengatik, eta aktiboak narriatzea ekar dezakete. Finantza-erakundeek hainbat ikuspegitik neurtu behar dute arrisku hori:

- Dituzten aktibo fisikoen ikuspegitik: egoitza nagusiak, lurraldeetakoak eta sukurtsalak. Eragiketa-arriskuaren kategorian sartzen dira.
- Berme gisa erabilitako aktiboen ikuspegitik: hipotekatutako higiezinak.
- Adjudikatutakoen eta sustapenen ikuspegitik.
- Finantzatutako enpresen aktibo fisikoen ikuspegitik, hondatuz gero, emandako maileguak ez itzultzea ekar baitezake.
- Hornitzaileen aktibo fisikoen ikuspegitik, zerbitzuen edo produktuen hornidura etetea gertatu ahal dela kontuan hartuta.
- Aseguru-konpainiek izango dituzten kostu handiagoen ikuspegitik.

Arrisku horiek kronikoak edo akutuak izan daitezke.

Akutuak

Muturreko eta unean uneko fenomeno meteorologikoak. Kategoria honetan sartzen dira bero- eta hotz-boladak, uholdeak, suteak, harri-erauntsiak, tornadoak, zikloiak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur-irristatzeak eta luiziak.

Kronikoak (epe luzekoak)

Kliman edo ingurumenean gertatzen diren egiturazko aldaketak dira; egonkorrak eta luzarokoak. Horien artean ditugu, adibidez, euri-ereduen aldaketak, basamortutzea, batez besteko tenperaturen igoera, itsas mailaren igoera, biodibertsitatearen narriadura eta lurzoruaen degradazioa.

Nabarmendu behar da AENOREk auditatutako ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriaren barruan —LABORAL Kutxak 2001etik du ziurtagiri hori— Entitateak ingurumenaren gainean duen zuzeneko inpaktuari lotutako arriskuen eta aukeren analisi bat egiten dela. Analisi horrek ez du aintzat hartzen egindako finantzaketa- edo inbertsio-lana, lehengaien kontsumitzaile eta hondakinen sortzaile gisa duen zuzeneko inpaktua baizik. Esanenez, analisi hori urtero egiten da, eta kontuan hartzen ditu bai bizitza-zikloaren alderdiak, zein egoera arruntak eta larrialdikoak. Analisi horretan ez da identifikatu esangura-maila oso altuko alderdirik. Esangura-maila altukoaren artean, bereziki garrantzitsuak dira hauek, haien magnitudeagatik:

- Paperaren, hozteko gasaren eta tonerraren kontsumoa.
- Plantillaren mugikortasuna.
- Produktu jasagarrien garapena.

Nolanahi ere, TCFDren eta TNFDren aplikazio-eremua erakundeen inbertsio- eta finantzaketa-jarduerari dagokio, eta, hortaz, hurrengo apartatuek alderdi horiek izango dituzte ardatz.



TRANSIZIO-ARRISKUAK

Legalak eta politikoak	Lege eta araudietako arau-aldaketak, klima-aldaketa sustatzen duten eta natura narriatzen duten sektore edo jardueri oztupo, murrizketa edo debekuak ezartzeko helburua dutenak. Era berean, lege edo araudi berriak ezar daitezke, berotegi-efektuko gasen isurtzeak murriztea eta biodibertsitatea babestea ahalbidetzen duten sektore edo jardueri erraztasunak edo laguntzak emateko. Faktore horietako batzuk badaude jada Europar Batasunak argitaratutako hainbat ekimenetan, hala nola Parisko Akordioan, Europako Itun Berdean eta Finantza Jasangarrien Ekintza Planean. Helburuak dira eredu ekonomiko eta sozial jasangarriago baten bidean aurrera egitea eta Europa isurtzeetan neutroa den lehen kontinentea izatea. Halaber, hainbat araudi plazaratzen ari dira finantza-sektoreari betebeharrak eta balizko zehapenak ezartzeko. Horietako batzuk onartuta daude dagoeneko; adibidez, CSRD zuzentaraua, Taxonomia eta SFDR erregelamendua. Beste batzuk, berriz, negoziatzeko edo onartzeko prozesuan daude; horien artean ditugu arreta egokia eta <i>greenwashinga</i> .
Ospeari lotutakoak	Interes-taldeak dira horien eragileak, sentsibilizazio handiagoa baitute klima-aldaketarekin, biodibertsitatearekin edo <i>greenwashingarekin</i> lotutako gaietan. Hortaz, konpainiei kalte egin diezaiekete helburu horiekin bat ez datozen jarduketek.
Merkatukoak	Bezero edo kontsumitzaileen lehentasun- eta portaera-aldaketek eragiten dituzte, merkatu-balioa galaraz baitiezaiekete ezaugarri jasangarriak ez duten produktu edo zerbitzuei.
Likideziakoak	Inbertitzaile edo finantza-merkatuen lehentasun- eta portaera-aldaketek eragiten dituzte, finantzaketa eskuratzea eragozten edo garestitzen baitiete klima eta biodibertsitatea errespetatzen ez dituzten sektore edo jardueri. Hona hemen arrisku horren adibide bat: berde edo jasangarritzat hartzen ez diren zor-jaulkipenekiko grina txikiagoa edo banku-finantzaketen interes-tasa handiagoa.
Teknologikoak	Ingurumena gehiago errespetatzen duten eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzen duten berrikuntza teknologikoen ondorioz atzean geratzen diren sektore edo jarduerak, egokitzeko inbertsio handiak behar dituztenak.

2.1.1 ARRISKUAK

Oro har, analisi bat egin da, eta, horretan, LABORAL Kutxak aintzat hartu dituen arriskuen zerrenda egin da, baina ez dira kontuan hartu hasiera batean materialtasun nabarmenik ez duten arriskuak (adibidez, kreditu-diferentzialaren edo pentsioen arriskua). Arrisku horiek klimari eta ingurumenari (K&I) lotutako 5 arriskurekin gurutzatu dira, azken horiek lehenengoei nola eragiten dieten aztertzeko. K&I arriskua 5 arrisku horien batezbestekoa da, baldintza honekin: 5 arrisku horietako batek maila jakin bat badu, K&I arriskua maila bat beherago egon ahal izango da gehienez. Hala, K&I arriskua ertain-handia da 3 arriskua mota hauetan: kreditu-arriskuan, eragiketa-arriskuan eta arautze-arriskuan.

ARRISKU-MOTA	K&I ARRISKUA	Trantsiziokoak			Fisikoak		Handia
		Politikoa/ Legala	Teknologiko a	Merkatukoa/ Ospearena	Kronikoa	Akutua	
Kredituarena							Ertain-handia
Merkatuarena							Ertain-txikia
Eragiketena							Txikia
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiena (IKTena)							Ez-materiala
Ospearena							
Interes-tasarena							
Handizkako finantzaketa-kostuarena							
Subiranoa							
Parte-hartzearena							
Negoziarena eta estrategikoa							
Araudiarena							
Likideziarena							

2023an, funtsezko aurrerapausoa izan da arrisku horiek kreditu-zorroan nola eragin dezaketen ebaluatzea, klima- eta ingurumen-arriskuen integrazioari begira.

KLIMA- ETA INGURUMEN-ARRISKU HANDIAK DITUZTEN SEKTORE EKONOMIKOAK

Merkataritza-arloari dagokionez, arrisku horiek kreditu-zorroan izan dezaketen inpaktua aztertu da. Guztira, 52 sektore ekonomiko eta 12 ESG arrisku-gertakari zehaztu dira.

ARRISKU-MOTA		TALDEA		ARRISKU-GERTAERA
Ingurumen-arriskuak	Trantsizio-arriskuak	Araudia eta legeria		Berotegi-efektuko gas-isurtzeen prezio-igoera
				Arauzko eskakizunak gehitzea eta/edo ingurumena kaltetzen duten material eta/edo zerbitzu jakin batzuk debekatzea
				Auziak
				CO ₂ -aren isurtzeak murrizteko politikak
		Teknologia		Isurtze gutxiagoko teknologiarako trantsizio-kostuak
		Merkatua / Ospea		Bezeroen portaera- edo lehentasun-aldaketak
				Lehengaien kostu-igoera
				Hornitzaile eta/edo enplegatuen portaera-aldaketak
	Inbertitzaileen portaera-aldaketak			
	Arrisku fisikoak	Akutuak	Klima-arriskua	Muturreko gertakari meteorologikoak (uholdeak, idorteak, ekaitzak, urakanak, bero-boladak, baso-suteak eta abar)
Kronikoak		Klima-arriskua	Lurzoruaaren produktibitate-galera eta/edo euri-ereduen aldaketak eta klima-ereduen muturreko aldakortasuna	
		Bestelako ingurumen-arriskuak	Natura-baliabideen gehiegizko ustiapena (gehiiegizko arrantza, estres hidrikoa, lurzoruaaren kutsadura, gehiegizko ongarriztatzea...)	
Gizarte-arriskuak				- Haurren lana, lan behartua eta gizakien salerosketa Baldintza txarrak osasunaren, hezkuntzaren eta laneko segurtasunaren arloan Langileen eskubideak urratzea (negoiazio kolektiboa, elkartetan antolatzea, lanorduak eta abar) Kontsumitzailearen babesaren, kontsumitzailearen eskubideen eta okerreko bezeroaren lehentasunaren gaineko erantzukizunarekiko esposizioa Eta abar
Gobernantza-arriskuak				- Administrazio-kontseiluaren jabetza, kudeaketa eta eskumena ez dira gardenak, eta ez datoz bat ESG arauekin - Gobernu korporatiboan ez dago oso argi zein diren erabakiak hartzeko eta kontrol-funtzioetan aritzeko arduradun nagusiak - Ez dago lehiaren aurkako jardunbideei aurre egiteko printzipiorik, edo dauden printzipioak ez dira nahikoak; beraz, eztabaidekiko esposizio handia dago - Legez kanpoko eta etika txikiko ordainketekiko esposizioa - Bidegabeko jokabideekiko esposizioa, transferentzia-prezioei, alde lotuei eta finantza-informazioari dagokienez - Eta abar

Inpaktu- eta probabilitate-faktoreen arabera arrisku-maila esleitu zaie arrisku-gertakari horiei.

INPAKTUA	PROBABILITATEA
MUTURREKOA	OSO PROBABLEA
HANDIA	PROBABLEA
ERTAINA	GERTAGARRIA
TXIKIA	EZ-PROBABLEA

Jarduera-sektore bakoitzari score bat esleitu zaio, 4 maila dituen: arrisku handia, ertain-handia, ertain-txikia eta txikia. Arrisku-maila handia eta ertain-handia dituzten sektoreek esposizio handiagoa izango dute klima- eta ingurumen-arriskuen aurrean, eta arrisku txikia eta ertain-txikia dituztenek, berriz, esposizio txikiagoa.

horretako enpresei ematen ari zaien finantzaketak aintzat hartzen dituen ala ez lehen aipatutako arriskuak, edozein dela ere kutsatzailea izan daitekeen jarduera ekonomikoa.

Bada, *deep dive* horren emaitzak erakutsi duenez, mugatuak dira LABORAL Kutxak 4 sektore horietan dituen arriskuak. Izan ere, alde batetik, Entitateak ez du aireko eta itsasoko garraioarekiko esposiziorik. Eta, bestetik, petrolioaren eta gasaren sektorearekiko zein salgaien lurreko garraioarekiko esposizioa badu ere, txikiak dira kontrako alderdiak. Azkenik, sektore elektrikoa da Entitatearen esposizio nabarmena eta tamaina handiko kontrako alderdiak dituen bakarra. Hala ere, zehaztutako analisia egin ondoren ikusi da LABORAL Kutxak sektore horretan dituen kontrako alderdirik gehienek energia berriztagarrietan jarduten dutela nagusiki; beraz, klima- eta ingurumen-arriskua arindu egiten da hein handi batean.

Bestalde, hauek dira klima- eta ingurumen-arrisku ertain-handiak dituzten sektoreak, bero-maparen arabera:

- Nekazaritza: barne hartzen ditu laborantza ez-iraunkorra, laborantza iraunkorra, behi-abeltzaintza eta gainerako abeltzaintza
- Metalen erauzketa
- Produkzio metalurgikoa
- Kimika
- Papergintza
- Plastikoaren produkzioa
- Ura eta hondakinen kudeaketa
- Eraikuntzako materialak
- Eraikinen eraikuntza
- Ibilgailuen fabrikazioa
- Haragikien edo hegazti-produktuen produkzioa
- Edarien produkzioa
- Higiezin kudeaketako zerbitzuak

BIZITEGI- ETA MERKATARITZA-ETXEBIZITZAK

Hipotekek dute pisurik handiena LABORAL Kutxaren finantzaketa-zorroan. Hori dela eta, berariaz aztertu da klima-aldaketari eta ingurumenari lotutako faktore fisikoek zein trantsizioek bizitegi- eta merkataritza-etxebizitzetan hipoteka-arriskueta duten inpaktua.

Analisi hori egiteko, barne-informazioa —hipotekak formalizatzeko unean eskuratua— erabili da, bai eta Tasazio Sozietatearen bidez lortutako datuak ere: hipoteka-zorro historikoko energia-efizientziaren ziurtagiriak eta kokapen fisikoari lotutako arrisku fisikoak.

Trantsizio-arriskuak

Egindako ebaluaziotik ondorioztatuenez, energia-kalifikazio txikia (F eta G) duten etxebizitzek esposizio handiagoa dute trantsizio-arriskuen aurrean, batez ere bi arrazoi hauek direla eta:

- Kalifikaziorik okerrenak dituzten etxebizitzek salmenta edo alokairua murritztea helburu duten legeztatze-ekimenak daude, Espainian oraindik gauzatu ez diren arren.

- Dela arauzko arrazoi horiengatik, dela F eta G kalifikazioa duten etxebizitzek berokuntza-eta hozte-gastu handiagoa eragiten dutelako, litekeena da etxebizitza horien eskaria jaistea eta, ondorioz, haien merkatu-balioak behera egitea.

Hori gertatuz gero, berriz, finantza-erakundeek ere berme horien kolateralaren balioa galduko lukete. Hona hemen LABORAL Kutxaren zorroaren analisiaren emaitza:

	Esposizioaren %-a	LTVa
A	% 3,47	% 46,09
B	% 2,23	% 46,68
C	% 2,61	% 43,54
D	% 10,00	% 40,63
E	% 62,18	% 37,39
F	% 11,02	% 37,08
G	% 8,49	% 37,65

Arrisku fisikoak

Muturreko gertakari fisikoek eta klimari zein naturari lotutakoek higiezinetan duten eraginaren ondorioz, gerta liteke horiek balioa galtzea, bai eta, areago, suntsitzea ere. Gero eta maizago gertatzen dira halako muturreko klima-gertakariak. Tasazio Sozietateak emandako informazioaren bidez aukera dago klima- eta natura-arriskuekiko esposizioa zehazteko (barne direla kostaldeko uholdeak, basamortutzea, ibai-uholdeak eta lurrikarak). Analisiak erakutsi duenez, arriskuok ez dira nabarmenak, oro har.

Izan ere, haietatik guztietatik ibai-uholdea da aintzat hartzeko moduko arrisku bakarra.

Ibai-uholdearen arriskua	Definizioa	Urtebeteen gertatzeko probabilitatea	Esposizioa
PROBABILITATE HANDIA			
UHOLDE UGARIAK	Ibai-uholdearen arriskua 10 urtean	% 10,00	% 2,01
PROBABILITATE ERTAINA EDO NOIZBEHINKAKOA	Ibai-uholdearen arriskua 50 urtean	% 2,00	% 1,25
PROBABILITATE TXIKIA EDO EZOHIAKOA	Ibai-uholdearen arriskua 10 urtean	% 1,00	% 0,98
PROBABILITATE TXIKIA EDO EZOHIAKOA	Ibai-uholdearen arriskua 500 urtean	% 0,20	% 8,26
EZ DA UHOLDE-EREMUTZAT HARTZEN	Ez dago arriskurik	% 0,00	% 87,49

Higiezin propioak

LABORAL Kutxaren higiezin propioen arrisku fisikoak ere aztertu dira, Tasazio Sozietateak emandako informazioaren bidez. Arrasateko Zerbitzu Zentralen eraikinak, bulego-sareak, biltegiak eta lurralde-zuzendaritzak dira higiezin horiek, 334 guztira.

Bada, ibai-uholdearena da antzemandako arrisku fisiko bakarra, eta 17 higiezinak dute horrekiko esposizioa. Bulego-sareko merkataritza-lokalak dira gehienak; beraz, materialtasun txikia du arrisku horren inpaktuak.

Arrasateko egoitza nagusiaren hiru eraikinei dagokienez —horietan arrisku fisiko horiek eragiketa-inpaktu handia izan dezakete—, azterketak ondorioztatu du ez dutela gertatzeko probabilitate nabarmenik.

Orobat, biodibertsitatean ere ez da inpakturik identifikatu Zerbitzu Zentralen eta bulego-sareen kokapenaren ondorioz.

2.1.2 AUKERAK

Aipatutako arrisku fisikoak zein trantsiziokoak oinarritzat hartuta, LABORAL Kutxak klima-aldaketaren eta aldaketa horrek eragindako ekoizpen-ereduaren eraldaketaren aukerei buruzko azterketa bat egin du. Halaber, aztergai izan ditu klima-aldaketa geldiarazteko eta natura-narriadura zein biodibertsitate-galdera saihesteko abian jarritako ekintzak. Helburu horrekin, jarraian deskribatzen diren irizpide orokorrak erabili ditu.

Aukera horiek epemuga desberdinak dituzte: epe laburra (0-2 urte), epe ertaina (2-5 urte) eta epe luzea (5 urtetik gora).

<u>ENERGIA BERRIZTAGARRIAK</u> Trantsizio energetikoa deskarbonizazioaren zutabe garrantzitsuenetako bat da. Orain arte, erregai fosiletan oinarritu da energia-ekoizpena nagusiki (ikatz, petrolio eta gasa erabiliz); horregatik, CO₂-aren isurtzeen eragile nagusietako bat izan da.	<u>EPE LABURRERA</u> - Aldaketak kontsumitzaileen (norbanakoak edo enpresak) lehentasunetan, energia garbien alde, bai ingurumenarekiko kontzientziazioa areagotu delako bai erregai fosiletatik datorren energiaren kostuak asko igo direlako (erregaiak ateratzeak kostu handiagoa duelako, gatazka geopolitikoengatik...). Hori dela eta, kontsumitzaileek hau egin dezakete: • Iturri berriztagarriekin lan egiten duten banatzaile elektrikoak kontratatu. • Autokontsumoa, komunitate energetikoak, eguzki-kooperatibak... -Laguntza/dirulaguntza publikoak (adibidez, Next Generation funtsak), energia berriztagarriari lotuta. <u>EPE ERTAINERA</u> -Eguzki-energiaren potentzial handiagoa, klima-aldaketaren ondorioz egun eguzkitsu gehiago daudelako. -Hidrogeno berdea sustatzen duten proiektuen ugaritzea. <u>EPE LUZERA</u> -Erregai fosilak agortzea edo kostu ez-lehiakorak izatea.
<u>MUGIKORTASUN JASANGARRIA</u> Mugikortasuna da CO₂-isurtzeen beste eragile nagusietako bat. Joan-etorrietarako era jasangarriagoa bat izatea ezinbestekoa da neutraltasun klimatikoa lortzeko. Ildo horretan, gas horiek isurtzen ez dituzten (edo gutxiago isurtzen dituzten) mugikortasun-aukerak agertzen ari dira, eta inbertsio handiak beharko dituzte.	<u>EPE LABURRERA</u> -Norbanakoen ibilgailu elektrikoak (autoak, motorrak, kamioiak eta MPlak): • Kargatzeko puntu gehiago aparkalekuetan, gasolindegietan... • Laguntza/dirulaguntza publikoak. • Aldaketak kontsumitzaileen lehentasunetan. • Emisio gutxiko eremuen (EGE-en) ugaritzea, non positiboki diskriminatuko baitira berotegi efektuko gas (BEG) gutxiago isurtzen dituzten ibilgailuak. -Bizikletak: • Azpiegitura hobeak (erreaiak, aparkalekuak...). • Elektrifikazioa (bizikleta elektrikoak). -Autobus elektrikoak: • Hiri barruko garraiobide gisa orokortzea. -Trena/metroa. Sustapena. <u>EPE LUZERA</u> -Hidrogeno berdez propulsatutako autobusa: • Ibilbide luzeagoetarako. -Aireko garraio jasangarriagoa: elektrifikazioa, isurtze gutxiagoko erregaiak...

ETXEBIZITZA BERDEA ETA ENERGIA-EFIZIENTZIA Etxebizitzaren sektoreak eraldaketa sakona izango du neutraltasun klimatikoa lortzeko. Espainian, eta, zehazki, Euskadin eta Nafarroan, etxebizitza-parkea energia-efizientzia urrikoa da. Horregatik, datozen urteetan negozio-aukera bat izango da etxebizitza efizienteak eraikitzea eta birgaitzea.	<u>EPE LABURRERA</u> -Gastu gutxiago, etxebizitza efizienteetan bizi diren familiek energia-aurrezpena izango baitute. -Laguntza publikoak/dirulaguntzak, norbanakoentzat eta jabeen erkidegoentzat, dituzten etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko, efizientzia hobetzeari begira. <u>EPE ERTAINERA</u> -Zerga-pizgarriak: administrazioarenak, etxebizitza efizienteen jabeentzat. -Zigorak eta kostuak. Adibidez: saltzeko edo alokatzeko aukera etxebizitza efizienteetara mugatzea.
NEKAZARITZA JASANGARRIA ETA BIODIBERTSITATEA Eraldaketa sakonak gertatzen ari dira nekazaritza-metodoetan. Tradizionalki ongarri kimikoak eta pestizidak erabili izan badira ere, ondorio txarrak dituzte horiek kontsumitzaileen osasunerako, lurraren produktibitateko eta biodibertsitateko (erleak desagertzea, adibidez). Hori dela eta, bestelako nekazaritza-ereduak sustatzen ari dira, hala nola nekazaritza ekologikoa edo birsortzailea.	<u>EPE LABURRERA</u> -Aldaketak bezeroen lehentasunetan, produktu jasangarrien/ekologikoen alde, bai ingurumenari lotutako arrazoiengatik, bai osasuntsuagoak direla uste delako. -Nekazaritza Politika Erkideko (NPE) laguntzak eta dirulaguntzak ekoizpen jasangarria erabiltzen duten ustiatuegentzat. <u>EPE LUZERA</u> -Produktibitate hobea, inbertsio txikiagoa behar izango delako eta lurra gutxiago ahituko delako.
<u>EKONOMIA ZIRKULARRA</u> Negoio-bide berriak irekiko ditu produkzio-ereduaren eraldaketak, jardueraren inpaktua kontuan izango duen beste eredu bat sortuko baita eta, horrela, produktuaren bizi-zikloa aintzat hartuko baita.	<u>EPE ERTAINERA eta LUZERA</u> -Birziklatze-industria. -Materialak berrerabiltzea. -Hondakinen tratamendua. -Ekodiseinua.

2.2 NEGOZIOAREN, ESTRATEGIAREN ETA FINANTZA-PLANGINTZAREN GAINKO INPAKTUA

2.2.1. Inpaktuen identifikazioa eta kuantifikazioa

Klima-aldaketa lotutako arriskuak identifikatu eta kuantifikatzean, erronka nagusia datuen gabeziak eragiten du. Alde batetik, arriskuen kudeaketan alderdi berri bat denez, ez dago ezagutza edo erreferentzia argirik jakiteko nola integratu behar diren eredu eta metodologia tradizionaletan. Aldi berean, arriskuak behar bezala neurtzeko behar diren datuak sortu eta lortu behar dira.

Lehen aipatutako faktore fisiko eta trantsiziokoak aztertu ondoren, arriskuak eta aukerak identifikatu dira sektore eta jardura jakin batzuetan. LABORAL Kutxa erabakiak hartzen hasi da, negozio-eredua, estrategia eta finantza-plangintza klima-aldaketa eta naturari lotutako arrisku eta aukera horietara egokitzea.

Ildo horretan, helburu nagusi hau du LABORAL Kutxak: bezeroekin elkarlanean aritzea, klimaren aldetik jasangarriagoak izango diren eta ingurumena zainduko duten negozio-ereduetarako trantsizioa egiten laguntzeko.

Karbono-aztarna

2022an, lantalde sektorial batean parte hartu zuen LABORAL Kutxak, karbono-aztarna hobeto kalkulatzeko. Finantza-erakunde gisa, garrantzizkoa da 3. irismenean beste elementu batzuk sartzea, bereziki inbertsio- eta finantzaketa-zorroekin lotutakoak. Lantaldearen jardunaren ondorioz, ezagutza teorikoa handitu eta beste kalkulu-tresna bat lortu genuen. Dena den, kalkulu-metodologia hori hobetu egin behar da oraindik. Kalkulua egiteko modu berriak badu gabezia bat, nagusiki: finantzatutako kontrako alderdirik gehienei buruzko informaziorik eza. Hortaz, gaur egun, informazio publikoa eta hurbilketa sektorialak erabiltzen dira kalkulua egiteko. Hurrengo ekitaldietan zuzenduko da gabezia hori. Alabaina, kalkulu horrek jauzi nabarmena dakar jardueraren inpaktuari buruzko ezagutzari dagokionez. 4.2 apartatuan ikus daiteke kalkuluaren emaitza.

Erregai fosilekiko esposizioa

Jasangarritasun Txostenean neurtu izan da karbono-isurpenari lotutako aktiboak zenbateraino dauden arriskuaren eraginpean. Aktibo horietan, erregai fosiletatik datorren energia sortzen eta hornitzen duen industriari lotutakoak sartu dira, energia berriztagarriaren iturriei dagokiena sartu gabe. Horrenbestez, elektrizitate konbentzionala, petrolio, gasa eta ikatza ekoizten eta hornitzen duten enpresak daude.

Erregai fosilekiko esposizioa, 12-31n (mila €-kotan)	2021	2022
Eragiketa-kopurua	44	48
Esposizioa, guztira	7.533.662	5.176.440

Materialtasuna

GRI estandarrari jarraikiz, urtero materialtasunaren analisi bat egiten da, Jasangarritasun Txostena prestatzeko. Materialtasunari buruzko azterlana egiteko, kontsulta egiten zaie interes-taldee: langileei, bezeroei edo hornitzaileei. Adibidez, txostenaren laburpen bat bidaltzen zaie 540.000 bezerori baino gehiagori, galdera-sorta batekin batera. Tradizioz, interes-taldeek garrantzi ertaina egotzi diete ingurumen-kudeaketarekin eta ekonomia berde eta jasangarriako trantsiziorako laguntzarekin zerikusia duten alderdiei.

2023ko azterlanean, elementu bat dago balorazioa egiteko: gizartearen, ingurumenaren eta klima-alaketaren arloko arriskuak txertatzea gure finantza-arriskuen ereduaren. Bezeroei eta plantillari egindako kontsultaren emaitzak (800 erantzun baino gehiago) erakutsi du alderdi horri balorazio txikia ematen zaiola (18 elementutatik 15. postuan dago).

2.2.2 Inpaktuen kudeaketa

Klima-alaketaren arriskuak eta aukerak eta haien epemuga aztertu ondoren, zenbait jarduketar-lerro identifikatu dira. LABORAL Kutxak jasangarritasunari eta klima-alaketaren arriskuak sartzeari dagokionez duen estrategiak areei dagokien zeharkako gestio-plan bat ekarri du. Jarraian ekimen garrantzitsuenak zehazten dira:

DATU-BILKETA

Esan bezala, hauxe da lehen zeregina: ezagutza sortzeko eta erabaki egokiak hartzeko behar adina datu eta informazio biltzea. Zentzu horretan, gabezia bat dago, informazio hori ez baitzen aintzat hartzen duela gutxi arte.

Lehenik eta behin, faktore fisiko eta trantsizioeko esposizio handiena duten sektore ekonomikoetan eta etxebizitzetan jarri dugu arreta. Helburua da enpresa eta etxebizitza bakoitzak klimaren eta ingurumenaren arloan duen arrisku- edo aukera-maila zehaztea.

Hipotekatutako etxebizitzetara dagokienez, ahalegin bereziak egin ditugu energia-kalifikazioak eta arrisku fisikoak biltzeko. Horretarako, hainbat neurri hartu ditugu:

- Energia-kalifikazioaren datua emateko beharra, hipoteka bati alta emateko orduan.
- Datuaren kalitatearen barne-ikuskapena.
- Kanpoko hornitzaileengandik (Tasazio Sozietatetik) eskuratzea hasieran bildu ez ditugun energia-kalifikazioen datuak eta kokapenen arriskuei buruzko informazioa.

Merkataritza-arloan, ESG datuak eskuratzen ari dira batez ere, galde-sorten bidez. Bolumenik eta/edo arriskurik handieneko eragiketetan, enpresaren ESG datuei eta eragiketaren helburuari buruzko galde-sorta bat erantsi behar zaio eskaerari. Era berean, enpresentzako ESG ratingen inguruko proiektu batzuetan ari gara lanean.

PLANTILLAREN PRESTAKUNTZA

Jasangarritasunari buruzko alderdiak berri samarrak dira finantza-negozioan, eta haien inguruko ezjakintasun handia dago sektorean. Hori dela eta, lehentasunezkoa da plantillak —bai merkataritza-sektorekoak bai Zerbitzu Zentraletakoak— ESG alderdien inguruko ezagutza handiagoa hartzea.

Horretarako, jasangarritasunari buruzko prestakuntzarako ibilbide-orri bat prestatu da, non arlo horretan dauden beharrianak aztertu baitira, bai zuzendaritzako karguei dagokienez, bai langileei dagokienez. Analisi horren ondorioz, zenbait prestakuntza-ekimen sartu dira LABORAL Kutxaren Prestakuntza Planaren barruan:

- 5 prestakuntza-ordu Kontseilu Errektorearentzat, arriskuak ardatz dituen jasangarritasunari buruz.
- 6 prestakuntza-ordu zuzendaritza-karguentzat: Zuzendaritza Kontseiluko kideak eta departamentuetako zuzendariak. Klima- eta ingurumen-arriskua izango da ardatza.
- Sentsibilizaziorako prestakuntza, pertsona guztientzat.
- Jasangarritasunari eta ingurumen-arriskuei buruzko prestakuntza, 5 ordukoa, MiFID finantza-aholkulari izateko ziurtagiria duten pertsonentzat.
- Taldeentzako berariazko prestakuntza: arrisku-analistak, enpresa-kudeatzaileak, arriskuen kontrola edo diruzaintza.

Bestalde, esan bezala, 2023an LABORAL Kutxako pertsona guztiek izan dituzte jasangarritasunari lotutako ordainsari aldakorreko helburuak.

PRODUKTUEN KATALOGOA

LABORAL Kutxak Finantzaketa Jasangarriko Esparru bat prestatu du, finantzaketa bat jasangarritzat —ingurumenaren zein gizartearen ikuspuntutik— har daitekeen erabakitzeko

irizpideak ezartzeko. Esparru horrek, hein handi batean, mailegu berde, sozial eta jasangarrien inguruko ICMAren jarraibideak ditu oinarri, baina kontuan hartzen ditu, halaber, garapen jasangarriko helburuetako (GJHetako) eta Taxonomiaren Erregelamenduko zenbait alderdi.

Ingurumen-finantzaketari dagokionez, Esparruak 5 apartatu ditu:

- Energia berriztagarriak
- Mugikortasun garbia
- Nekazaritza ekologikoa
- Biodibertsitatea
- Ekonomia zirkularra

LABORAL Kutxa produktu jasangarrien katalogoa ari da egiten, esparru hori erreferentziazat hartuta. Produktu horiek baldintza egokiagoak izaten dituzte, betiere ematen den finantzaketaren helburuak esparruan ezarritako jasangarritasun-irizpideak betetzen baditu. Helburua da funtsak helburu jasangarrietara bideratzea.

- DispON ESG
- Kontsumorako ESG mailegua
- Etxebizitza birgaitzea
- Komunitateak birgaitzea
- Enpresentzako autokontsumoko eguzki-plaketarako maileguak

Finantzaketa-katalogo hori osatzeko, aseguru-katalogo bat ere ari gara garatzen.

Azpiegitura eta jardueraren zuzeneko inpaktua

LABORAL Kutxaren ingurumen-inpaktu nagusia bere inbertsio- eta finantzaketa-jarduerak eragiten du (Scope 3). Hala ere, jardueraren zuzeneko inpaktua murrizteko ekimenak ere planteatu dira. Ildo horretan, nabarmendu behar da kontsumitutako energia elektrikoaren % 100 iturri berriztagarrietatik datorrela. Halaber, Arrasateko Zerbitzu Zentraletan airea girotzeko, energia berriztagarriak erabiltzen dira, geotermia eta biomasa, zehazki.

2023ko Gestio Planari dagokionez, 23 bulego berrituko dira bulego jasangarriaren eredu berria ezartzeko. Gauza bera egingo da Zerbitzu Zentralen eraikinetako batean, eta espero da BREEAM Excelente ziurtagiria lortzea eraikin horretarako.

Azkenik, Arrasateko beste kooperatiba batzuekin batera, proiektu bat abiarazi da energiaren autogeneraziorako ekimen partekatuak sustatzeko aukera aztertzeko. Proiektuaren helburua da iturri berriztagarrietatik datorren energia sortzeko eta autohornikuntzarako aukerak ebaluatzea. 2023aren itxieran, energia fotovoltaikoa sortzeko hiru proiektutan ari da parte hartzen Entitatea. Abian jartzen direnean, kontsumitutako energia elektrikoaren % 50 sortzeko gai izango dira proiektu horiek.

2.3 AGERTOKIEN ANALISIA ETA ERRESILIENTZIA-ESTRATEGIA

2.3.1 Agertokien analisia

2022an eta 2023an zenbait analisi egin ditugu erresilientzia estrategikoa hobetzeko eta klimaren arloko alde ahulak aztertzeko, eta txosten honetan jaso dira.

Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzaile sortzaile gisa hartutako konpromisoen barruan, LABORAL Kutxaren jardueraren inpaktuen analisi bat egin da. Inpaktu horiek gizartean zein ingurumenean dira, enpresen eta norbanakoen negozioak eraginda. Ingurumen-inpaktuei dagokienez, bi ondorio daude:

- Batetik, gure jarduerak ingurumenaren gainean duen zuzeneko inpaktua murriztu egingo litzateke CO₂-aren zuzeneko isurtzeak eta paper-kontsumoa murriztuta, baita desagerrarazi ezin diren 1. eta 2. irismeneko isurpenak konpentsatuta ere.
- Beste alde batetik, finantza-erakunde bat denez, LABORAL Kutxak ingurumen-inpaktu nabarmena du bere finantzaketa-jardueraren bidez. Puntu honetan, gure balantzearen jarduera nagusia hipotekak ematea denez, helburutzat jarri dugu energia-kalifikaziorik txarrenak (F edo G energia-kalifikazioak) dituzten etxebizitza hipotekatuen kopurua murriztea astiro-astiro. Horri esker, etxebizitza-parkearen energia-efizientzia hobetu ahal izango da. Gaur egun, oso zaharra da, ez da eraginkorra eta Espainiako BEG-isurtzeen % 30 sortzen du.

Txosten honetako [3.2 apartatua](#) KLETaren barruko agertoki estresatuak jasotzen dira.

LABORAL Kutxak jarraitu egin nahi du bere jarduerak naturan sortzen dituen mendekotasunak ezagutzen eta aztertzen.

2.3.2 Erresilientzia-estrategia

LABORAL Kutxaren estrategiaren erresilientziari dagokionez, TCFD txosten honen bidez, Entitateak agertokiaren hasierako analisi bat egin du klima-aldaketaren arriskuei eta aukerei buruzko apartatuan.

Lehen analisi horretan egiaztatu denez, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioak eragindakoak dira Entitateari gehien eragiten dioten klima-arriskuak. Hori dela eta, estrategia martxan jartzeko atalean deskribatutako lehentasunezko jardun-ildoen helburua da trantsizio-arriskuak arintzea (legalak, teknologikoak, merkatukoak edo ospeari lotutakoak).

Zuzeneko arriskuei dagokienez, hasiera batean ez da hauteman LABORAL Kutxari epe laburrera eragin diezaiokeen berehalako arrisku garrantzitsurik. LABORAL Kutxak batez ere EAEn eta Nafarroan garatzen du bere jarduera, eta eremu horietan basamortu bihurtzeko eta suteak izateko arriskuak txikiak dira, eta uholdeak izateko arriskua leku oso zehatzetara mugatzen da. Hala ere, zuzeneko arriskua gehiago garatu behar den alderdia da; epe ertainera eta luzera aztertu behar da, izan ditzakeen inpaktuetan sakonduta, batik bat ingurumen-narriadurari eta biodibertsitate-galerari dagokienez.

Egungo ezagutza-maila oinarritzat hartuta, uste dugu LABORAL Kutxaren erresilientzia egokia dela epe laburrera, klima-arriskuei aurre egiteko. Nolanahi ere, behar bezala neurtzeko, gehiago ikastea eta analisi sakonagoa egitea behar duen hasierako balorazioa baino ez da.

LABORAL Kutxaren [Jasangarritasun Txostenean](#), egin diren eta partaide garen aliantzak kontsultatu ahal dira. Taldearen erresilientzia-estrategiaren funtsezko elementua dira.



3.

**KLIMA- ETA
INGURUMEN-ARRISKUEN
KUDEAKETA**

3.1 Arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko prozesua

Finantza-erakundea izanik, arriskuen kudeaketa jardueraren elementu nagusia eta berezkoa da. Lehenago esan denez, badago Arrisku Batzordea, zeina Kontseilu Errektoreari erakundeak dituen arriskuei buruzko aholkuak zuzenean emateaz arduratzen baita. Arriskuei, haien integrazioari eta ebaluazioari buruzko alderdi espezifiko guztiak, baita klima-aldaketari lotutakoak ere, batzorde horren eginkizunak dira.

EBZren arau-aurreikuspenekin bat, jasagarritasunaren eta klima-aldaketaren arloko arriskuen integrazioa hurbiltzearen helburua da arrisku horiek lehendik kudeatzen diren arrisku-kategorietan sartzea (kreditua, merkatua, etab.).

Arrisku Batzordearen ardurapean dago Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua. Horrez gainera, zuzendaritzako erakunde-egituraren barruan, Arriskuen Area dago, eta haren arduraduna Zuzendaritza Kontseiluko kide da.

2.2.1 Arriskuak atalean, klima-aldaketari eta ingurumen-narriadurari lotutako faktore hauek identifikatu dira, faktore fisikoek eta trantsizioek LABORAL Kutxaren kreditu-zorroko sektore ekonomiko eta jarduerari nola eragiten dieten aztertzeko egindako analisiaren ondoren:

Klima- eta ingurumen-arrisku handia duten sektore ekonomikoak	• Elektrizitatea • Petrolioia eta gasa • Salgaien lurreko garraioa • Aireko eta itsasoko garraioa
Klima- eta ingurumen-arrisku ertain-handia duten sektore ekonomikoak	• Nekazaritza: laborantza ez-iraunkorra, laborantza iraunkorra, behi-abeltzaintza eta gainerako abeltzaintza • Metalen erauzketa • Produkzio metalurgikoa • Kimika • Papergintza • Plastikoen produkzioa • Ura eta hondakinen kudeaketa • Eraikuntzako materialak • Eraikinen eraikuntza • Ibilgailuen fabrikazioa • Haragikien edo hegazti-produktuen produkzioa • Edarien produkzioa • Higiezinaren kudeaketako zerbitzuak
F eta G energia-kalifikazioak dituzten bizitegi- eta merkataritza-eraikinak	
Arrisku hauek dituzten bizitegi- eta merkataritza-eraikinak: lurrikarak, basamortutzea, suteak, ibai-uholdeak, kostaldeko uholtzak, sumendiak eta zuhaitz-masarekiko hurbiltasuna	

Behin arriskuak eta eragindako sektore eta jarduerak identifikatuta, zenbait adierazle zehaztu behar ditugu haietako bakoitzak LABORAL Kutxaren zorroan duen eraginari buruz, beraien ebaluazio zuzena egin ahal izateko. Helburu horrekin, taula honetako adierazleak zehaztu ditugu:

Zorroaren esposizioa klima- eta ingurumen-arrisku handiaren eta ertain-handiaren aurrean	%-a
Klima- eta ingurumen-arrisku ertain-handia duten sektore ekonomikoak, merkataritza-finantzaketa osoaren aldean	% 8,48
F eta G energia-kalifikazioak dituzten hipotekak, hipotekatutako etxebizitza guztien aldean	% 29
Arrisku fisikoak dituzten hipotekak, hipotekatutako etxebizitza guztien aldean	% 3,2

3.2 Klima- eta natura-arriskuak kudeatzeko prozesua

Lehenago esan denez, Entitatean, arriskuen kudeaketa eta kontrola hiru babes-lerroen eredian oinarritzen da:

- Lehen lerroa. Ardura duten areek arriskuak kudeatzen dituzte. Jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arloko arriskuei dagokionez, Jasangarritasun Bulegoak laguntza ematen du eta lana koordinatzen du.
- Bigarren lerroa. Arriskuen Kontrol Globalaren Departamentua.
- Hirugarren lerroa. Barne Ikuskaritza.

LABORAL Kutxak Arriskuarekiko Grinaren Esparruan (Risk Appetite Framework) finkatu du bere arriskuarekiko grina, eta urtero eguneratzen du (Risk Appetite Statement, RAS). Esparru horretan, arriskuaren atalaseak ezartzen dira. Atalase bat alerta goiztiarrerako balio bat da, kontrolerako erreferentzia bat, zeinak, gaindituz gero, Entitatea dagokion adierazlerako formulatutako helburuetatik modu negatiboan desbideratzen ari dela erakusten baitu. Adierazleen jarraipenari dagokionez, gainditzen badira, desbideratzea aztertzeke protokolo bat aktibatuko da, eta hurbil-hurbileko jarraipena egingo da.

Era berean, arriskuarekiko tolerantzia ezartzen da, zeinak, helburu estrategikoak lortzeko, Entitatea adierazle bakoitzean onartzeko prest dagoen gehieneko erreferentzia edo maila (kaltegarria) ezartzen baitu. Arriskuarekiko tolerantziak izaera bikoitza du: batetik, prebentziokoa, negozio-estrategia prestatzen den unean, eta, bestetik, adierazlea arrisku gutxiagoko mailetara bideratzekoa, jarraipenean ikusten bada adierazleak ez-betetzearen eremurantz egin duela.

Adierazleei dagokionez, Arriskuarekiko Grinaren Esparruan, monitorizatu behar diren kontzeptu hauek identifikatu dira (ESG arriskuak barne direla):

- Kapitala
- Errentagarritasuna
- Likidezia-arriskua
- Kreditu-arriskua
- Interes-tasaren arriskua
- Merkatu-arriskua
- Eragiketa-arriskua
- Arrisku teknologikoa
- ESG arriskua

Txosten honetan zehar agerian geratu dira jasangarritasun-txostenak txertatzeko behar diren datuak eskuratzeko aurrerapenak, baita egindako analisien emaitzak ere. Era berean, argi geratu da kalitateko datuak eskuragarri izateko hobetzen jarraitu beharra dagoela, hautemandako gabeziak direla eta.

KAPITALAREN ETA LIKIDEZIAREN EGOKITZAPENAREN TXOSTENA (KLET)

2023an, lehen aldiz, ESG arriskuak sartu dira Kapitalaren eta Likideziaren Egokitzapenaren Txostenean (KLET). LABORAL Kutxa Taldeak kapitalaren eta likideziaren nahikotasunari buruzko autoebaluazioa egiten du txosten horren bidez, etorkizuneko estrategiaren ikuspegiarekin. Analisi hori oinarri hartuta, Kontseilu Errektoreak adierazi du Entitateak gainditu egiten dituela I. zutabea eta II. zutabea ezarritako kapital erregulatorioaren gutxieneko eskakizunak, eta bere jarduera tentsiorik gabe garatzeko adinako likidezia duela, baita estres-egoera batean ere.

EZBk 2022ko azaroan argitaratutako Good practices for climate-related and environmental risk management gidaren bidez emandako gomendioei jarraituz, LABORAL Kutxak Entitatearen

ohiko arriskueta eragina duten gertakari-multzo gisa aztertzen du klima-arriskua, ez arrisku isolatu gisa. Ildo horretatik, LABORAL Kutxak aldatu egin ditu bai bere materialtasun-analisia bai bere agertoki idiosinkrasikoen konfigurazioa, arrisku horiek kreditu-arriskuan integratu nahian, transmisio-kanal desberdinak aintzat hartuta.

ESG arriskuak estres-agertokietan izan dezaketen inpaktuari dagokionez, arrisku fisikoak zein trantsizioak onduko estresari buruzko alternatiba batzuk aztertu dira, bai etxetan, bai enpreetan. *Gai horri buruzko gogoetatik ondorioztatu denez, ez da aurreikusten 3 urteko epean gertakari nabarmenik gerta daitekeenik; beraz, ez da beste inpakturik gehitu arrisku horien agertokietan.*

- Hipoteka-zorroari dagokionez, alde batetik, arrisku fisikoak kasuan, urtebeteko epean ibai-uholdea gertatzeko aukera estresatu da, eta ondorioztatu da ez dela arrisku material bat. Beste aldetik, trantsizio-arriskuari lotutako aldagai berri bat sartu da KLETaren kalkuluan, hain zuzen ere F eta G kalifikazioak dituzten etxebizitza hipotekatuekin zerikusia duena. Estres-agertoki horretan, %10 jaitsiko litzateke etxebizitza horien balioa. Analisiaren emaitzak dio gaur egun hori ez dela arrisku material bat LABORAL Kutxarentzat.
- Merkataritza-arloan, aztertu da nola eragin diezaiekeen kapital-eskakizunei klima- eta ingurumen-arrisku handiak dituzten sektoreetako enpresekiko kreditu-esposizioak. Hemen ere ondorioztatu da hori ez dela arrisku material bat.

ARRISKUAREKIKO GRINAREN ESPARRUA

2022an, jasagarritasun-arriskuen inguruko 3 KPI sartu ziren Arriskuarekiko Grinaren Esparruan. Adierazle horietako bi hipoteka-zorroari lotuta daude: batetik, arrisku fisikoak, eta, bestetik, F edo G kalifikazioak dituzten energia-kalifikazioen ehunekoa. Hirugarren KPIak, berriz, gizarte- eta ingurumen-arrisku handiko EJSNetan inbertitutako merkataritza-saldoa adierazten du.

Esan beharra dago batek ere ez dituela gainditzen ezarritako mugak; hortaz, klima- eta ingurumen-arriskua kontrolpean dago gaur egun Arriskuarekiko Grinaren Esparruan.

2023an, doitu egin dira adierazle horiek. Besteak beste, bitan banatu da gizarte- eta ingurumen-arriskuaren KPIa, eta arriskuaren behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ezarri dira.

ESG arriskua			
#	Izena	I/C	2023ko irailako datua
29	Kreditu-inbertsioaren ratioa ingurumen-arrisku ertain-handia edo handia duten sektoreetan	I	% 8,48
30	Kreditu-inbertsioaren ratioa sozialki sentikorak diren sektoreetan	I	% 0,17
31	Kreditu-inbertsio hipotekarioaren ratioa energia-kalifikazio eskaseko etxebizitzetan	I	% 28,66
32	Kreditu-inbertsio hipotekarioaren ratioa arrisku fisiko handiko etxebizitzetan	I	% 3,21

3.3 Integrazioa arriskuen kudeaketa orokorrean

Ikuskapen-aurreikuspenek nahitaezkoztat jotzen dute klima-aldaketari eta ingurumenari lotutako arriskuak integrazioa arriskuen kudeaketa orokorrean. LABORAL Kutxak, horren jakitun izanik, arrisku horiek arriskuen gobernantzan eta prozesurik garrantzitsuenetan integrazten jarraitzen du.

Gobernantzari dagokionez —[1. apartatua](#) azaldu da—, Kontseilu Errektoreari dagokio LABORAL Kutxak bere gain hartzen dituen arriskuen zaintza eta ikuskapena egitea, bera baita Entitatearen gobernu-organorik gorena. Organoak informazioa jasotzen du urtean 3 aldiz, gutxienez, Jasangarritasun Bulegoak klima- eta ingurumen-arriskuen berri ematen baitio.

Zuzendaritzaren egiturari dagokionez, Zuzendaritza Kontseiluaren mendeko Jasangarritasun Batzordeak urtean 3 bilera egiten ditu gutxienez, arrisku horiek jorratzeko.

Azkenik, lehen esan bezala, klima- eta natura-arriskuen kudeaketa eta kontrola hiru defentsa-lerroen ereduaren oinarritzen da.

Halaber, [3.2 atalean](#) azalduenez, klima- eta ingurumen-arriskuen ikuspegia txertatu da bai Arriskuarekiko Grinaren Esparruan, bai Kapitalaren eta Likideziaren Egokitzapenaren Txostenean (KLET).

Ospe-arriskuaren berriazko eremuan, ospe-arriskuarekiko esposizio-indizearen (OAEIaren) hiru hilean behingo kalkuluaren barruan, hau da zehaztutako arriskuen kategorietako bat: jasangarritasunari lotutako alderdiak oso gutxi integratuta daude negozioan. Hala, honela definitzen da aldizkako jarraipena egiten zaien gertakizunetako bat:

LABORAL Kutxaren estrategiaren definizioan ez dira kontuan hartzen jasangarritasunari —edo ESGri— lotutako alderdiak eta/edo integrazio eskasa dute negozioan eta gobernantzan. Halaber, ez dago koherentziarik negozioaren eta helburu korporatiboaren artean (adibidez: produktu jasangarrien/arduratsuen sustapen eskasa; inbertsiorako erabakietan ez dira aintzat hartzen jasangarritasunari —edo ESGri— lotutako arriskuak; ez da helbururik zehaztu deskarbonizaziorako; goi-zuzendaritzan erantzukizun eskasa jasangarritasunari —edo ESGri— lotutako alderdiekin...).

Adierazleak 2023an eguneratu dira, eta 2024an ezarriko dira. Bi adierazle gehituko dira: *greenwashing*-arriskuarena eta sektore sentikorrekiko esposizioarena.

Halaber, **eragiketa-arriskuaren** kudeaketaren barruan, LABORAL Kutxaren jarduerari zuzenean eragin ahal dioten ingurumen- eta klima-arriskuari buruzko zenbait alderdi jaso dira. Ere horretan, elementu aringarria da ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriari eustea (urtero auditatzen du AENORek).

Jasangarritasunaren eta klimaren arloko arriskuak jarduketa-eremu berria dira, eta, gainera, zenbait ezaugarri bereizgarri dituzte; hori dela eta, oso zaila da halakoak kuantifikatzea. Hala ere, LABORAL Kutxaren asmoa da aurrerapausoak ematen jarraitzea haiei buruzko ezagutza pixkanaka hobetzeko eta behar bezala integratzeko.

2022an zehar, jasangarritasunaren arloko arriskuak epe ertainera integratzeko ibilbide-orri bat diseinatzeko lanak egin ziren. KPMGk laguntza eman zuen araudietan eta arauetan ezarritako eskakizunak eta aurreikuspenak identifikatzeko. GAP analisi horretatik abiatuta, integrazio-plan bat planteatu zen, egin beharreko jarduketaren kritikotasuna, inpaktuak eta zailtasuna kontuan hartuta.




4.

METRIKAK ETA HELBURUAK

4.1 METRIKAK

2.1.1 apartatuan (Arriskuak) klima- eta ingurumen-arriskuak identifikatu dira. Bestalde, 2.1.2 apartatuan, sektore jakin batzuk aipatu dira, hain zuzen ere CO₂-aren isurtze gutxi dituen eta natura-inpaktua aintzat hartuko duen ekonomiarako trantsizioan hazkunderik handiena dutenak. Jarraian, sektore horietako saldo biziak ikus daitezke:



Ingurumen-metrikak

Paperaren kontsumoa kilotan – LABORAL Kutxa+Lagun Aro	2022	2023
Publizitaterako papera	100.597	63.832
Bulegoko papera (gutunak, libretak, karpetak, folioak, gutun-azalak...)	214.647	205.250
Paperaren kontsumoa guztira*	315.244	269.082

Adierazlea	Unitatea	LABORAL Kutxa	
		2022	2023
Kartoi- eta paper-hondakinak	Kiloak	129.780	78.420
Birziklatutako toner-kartutxoak	Kiloak	1.392	2.794
Erabilitako landare-olioa	Litroak	560	560

Urtea/alea	LABORAL Kutxa	
	2022	2023
Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, Zerbitzu Zentralak	3.086.684	2.984.912
Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, LK-N GUZTIRA	10.570.653	10.291.441

Sorkuntza elektriko berriztagarria

LABORAL Kutxa energia berriztagarriko parkeetan inbertitzen ari da azken urteotan, autohornikuntza elektrikoa helburu duela. Hala, Ekian parke fotovoltaiakoan lehendik zuen partaidetzari beste bi parketakoa gehitu zaizkio 2023an, horietako bat Arrasaten bertan. Bi parkeok abian jartzen direnean, % 50 ingurura handituko da autokontsumitutako energia elektrikoaren ehunekoa.

Higiezin propioei dagokienez, Zerbitzu Zentraletako eraikinetako batean Bream ziurtagiria lortzeko prozesuan ari da Entitatea, baita bulego-eredu berria ezartzen ari diren bulego batzuetan ere.

Azkenik, bere jarduerak ingurumenaren aldetik jasagarriak diren ekonomia-jarduerekin nola eta zenbateraino lotzen diren jakinarazten du LABORAL Kutxak, kreditu-erakundeentzako 2020/852 (EB) Erregelamenduaren (Taxonomiaren Erregelamenduaren) 8. artikuluko informazio kuantitatiboaren eskakizunak betez.

Klima-aldaketa arintzea	GAR001 (mila €-kotan)	GAR003
LABORAL Kutxaren aktibo osoa	26.811.513	-
GARerako aktibo konputagarriak	17.966.053	% 100
Taxonomiarako aktibo hautagarriak	10.294.002	% 57,47
Taxonomiaren araberako aktiboak	665.110	% 3,71

Metrikak xehetasun handiagoz ezagutzeko, hemen kontsultatu daiteke: Jasangarritasun Txostena – Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, webgune korporatiboan.

4.2 KARBONO-AZTARNA

Hona hemen eragiketen karbono-aztarna:

LABORAL Kutxa			2023
BEG-isurtzeen laburpena			
Irismena	Id.	Jarduera-mota	tCO ₂ -aren isurtzeak
ZUZENAKO ISURTZEAK	1.1.I	Iturri finkoak	24,85
1. irismena	1.2.I	Iturri mugikorak	
	1.3.I	Isurtze iheslariak	104,59
	1.I	1. irismena – Guztira	129,43
ZEHARKAKO ISURTZEAK	2.1.I	Elektrizitate-kontsumoa	
2. irismena			
	2.I	2. irismena – Guztira	
ZEHARKAKO ISURTZEAK	3.1.I	Eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak	443,00
3. irismena	3.4.I	Uretan gorako garraioa eta banaketa	542,01
	3.5.I	Jardueran sortutako hondakinak	0,52
	3.6.I	Negozio-bidaia	805,54
	3.7.I	Langileen joan-etorriak	1.670,16
	3.I	3. irismena – Guztira	3.461,23
		Isurtzeak guztira	3.590,66

Datu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzaren HdC sectorial (Connecting Visions) kalkulagailua erabili dugu.

Hauek hartu ditugu kontuan:

- 1. irismenerako: gasolio- eta propano-kontsumoak eta gas hozgarriaren isurtzeak.
- 2. irismenerako: kontsumo elektriko osoa (Zerbitzu Zentralak, bulego-sarea eta lurralde-zuzendaritzetako eraikinak); 0 da, energia guztia iturri berriztagarrietatik datorrelako.
- 3. irismena: kontsumitutako uraren, paperaren eta tonerraren eta hodeia erabiltzearen ondoriozko isurtzeak hartu ditugu kontuan. Barruko posta-zerbitzuaren eta biltegi-eskaeren ondoriozko isurtzeak ere bai. Papera eta kartoia ere hondakintzat hartzen dira. Eta, azkenik, negozioengatiko joan-etorriak (kilometrajea, taxiak, bidaia) eta etxetik lantokirako joan-etorriak.

Finantzatutako isurtzeei dagokienez:

	Isurtzeak guztira
Kreditu-zorria	713.449,25
Mailegu korporatiboak	301.503,41
Hipoteka-maileguak	169.294,77
Administrazio publikoei emandako maileguak	242.651,08
Errenta Finkoko Zorria	1.063.715,86
Bonu korporatiboak	0,00
Zor subiranoa	1.063.715,86
Errenta Aldakorreko Zorria	0,00
Finantzatutako isurtzeak guztira, CO₂ tonatan	1.777.165,11

Isurtze horiek finantzatutako zorroaren eta altxortegiko inbertsioen % 87renak dira. Zorroaren gainerakoak eragindako isurtzeak ezin izan dira aurten kalkulatu, daturik ez dagoelako. Lehenago esan bezala, datuaren kalitateak hobera egin beharko luke hurrengo urteetan, eta eragina izango du kalkuluaren emaitzan.

Berotegi-efektuko gas-isurtzeen **intensitatea** (CO₂-aren isurtze guztiak zati LK-ko langile-kopurua) 0,54koa izan zen 2022an.

Intensitatearen beste neurria, hots, isurtze guztiak (1.780.755,76) zati aktibo guztiak (27.755, milioi €-kotan), 64,16koa izan zen 2022an.

2023ko Jasangarritasun Txostenean ikus daiteke karbono-aztarnaren kalkulu eguneratua eta hobetua.

4.3. HELBURUAK

Jarraian, jarduerak naturan duen inpaktua murrizteko, kooperatibaren jardueran jasangarritasunaren eta klima-arriskuaren erabateko integrazioa sustatzeko eta, hala, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa bultzatzeko helburuak zehazten dira. 1.3 puntuan, ordainsariarekin duen erlazioa azaltzen da.

Plan estrategikoa 2024aren amaierarako helburuak:

- % 10 murriztea LABORAL Kutxak osotasunean hartuta atmosferara isuritako CO₂ guztia, hala eragiketen karbono-aztarna murrizteko.
- Paper-kontsumoa % 50 murriztea, gure jardueran erabiltzen dugun baliabide nagusia baita.
- Energia-kontsumoa % 10 murriztea.
- % 40ari eustea hurbileko enpresa hornitzaileei egindako erosketetan, erosketa guztiak kontuan hartuta.

Jasangarritasuna Kudeatzeko 2024ko Plana:

- Deskarbonizazio-plan bat diseinatzea.
- Energia-efizientziaren ziurtagiriak eskuratzeko transakzioa hobetzea hipoteketan.
- Lehen txostena egitea TNFCren gomendioei jarraikiz (TCFDrekin batera integratuta).

- CSRD zuzentaraura egokitzeko prozesuan zehar, materialtasun bikoitzeko analisi sakona egitea, ESG alderdi guztien inpaktua eta finantza-materialtasuna aintzat hartuko dituen eta klima-alaketan arreta berezia jarriko duena.
- Higiezin propioen arrisku fisikoen analisia egitea.
- LABORAL Kutxa Taldearen inbertsioetan *engagement*eko eta aktibismo akzionarialeko prozedura bat ezartzea, zerbitzu horren hornitzaile baten bidez.
- ESG produktuen katalogoa garatzen jarraitzea.
- Ordainsari aldakorra jasagarritasun-helburuekin lotuta mantentzea. Zuzendaritza Kontseiluko kideen kasuan, deskarbonizazio-plan bat egitearekin lotuko da ordainsari aldakorra.



5.

**ETORKIZUNERAKO PLANAK
ETA KLIMA-ALDAKETARI
LOTUTAKO EKIMENAK**

TCFD esparruak gune ireki gisa planteatzen du azken apartatu hau, non azken urratsak zehaztuko baitira, baita klimari buruzko etorkizuneko planak eta klimari lotutako ekimenak laburtuko ere.

Zalantzarik gabe, bankuen jarduna klimari lotutako erronkek eta erregulatzaileen aurreikuspenek eskatzen duten eraldaketara egokitzea Entitateari, osotasunean hartuta, ahalegin handia eskatzen dion erronka itzela da. Kontseilu Errektoretik bulegoetako kudeatzaileetara, pertsona guztiak ari dira klima- eta ingurumen-alderdiak integratzen beren eguneroko lanean. Bezeroei arreta eskaintzeko eta eraldaketa horren erritmoari erantzuteko gai izatea esfortzu garrantzitsua da eta izango da datozen urteetan. Horretarako, ezinbestekoa da modu egokian lerrokatzea estrategia eta erakunde-egitura, erronka hori arrakastaz gainditzeko. Txosten honetan azaldu den bezala, LABORAL Kutxa Taldeak moldatzeko, egiturak egokitzeko eta ingurumenaren eta klima-aldaketaren arloko arriskuak integratzeko prozesu bat du abian. Aldi berean, produktuen katalogo berri bat garatzen ari da, pertsonen trebakuntzan aurrerapausoak ematen ari da eta jardueraren zuzeneko inpaktua murrizteko esfortzuari eusten zaio.

2023an, LABORAL Kutxak arrakastaz amaitu du kreditu-kooperatiba gisa duen helburuaren inguruko gogoeta-prozesua. Proiektu horrek Zentzua du izena, eta proiektu kooperatiboaren xedea berriro definitzea eta eguneratzea du helburu. Orain, argi dago kima-aldaketaren ondorioek eta aldaketa horrek eragindako eredu ekonomikoaren eraldaketak ondorio garrantzitsuak dituztela pertsonengan, eta, beraz, ezin dira bereizi orain arte Entitatearen jardueraren ardatz nagusia izan diren eraldaketa sozialerako helburuetatik.

Gogoetaren emaitza gisa, ingurumen-inpaktuarekin lotutako ondorio batzuk zehaztu dira:

- Parte garen komunitateei lagundu egin nahi diegu ingurumen-arloan jasagarria eta gizarte-arloan bidezkoa izango den trantsizio batean aurrera egin dezaten.
- Horretarako, pertsona eta enpresen ondoan gaude trantsizio energetiko-klimatikoa eta teknologiko-digitala egiten, finantzaketaren eta aholkularitzaren bidez eta finantzaketa-irtenbide arduratsuak eta jasagarriak garatuz.

TNFD esparruari dagokionez, lehen txosten hau hurbilketa bat da, alderdi berritzaile horri buruzko barne-ezagutza hobetzeko asmoa duena. Hurrengo txostenetan sakondu egingo dugu inpaktu eta mendekotasunen analisian, baita ingurumen-narriadurari eta biodibertsitate-galerari lotutako arrisku eta aukerenean ere. Era berean, aurrera egingo dugu LEAP ikuspegia ezartzen.

5.1 ETORKIZUNERAKO PLANAK

Txosten honetan TCFDrekin eta klima-aldaketarekin lotutako ekimen batzuk deskribatu dira, hala nola deskarbonizazio-plana eta CSRD zuzentarauaren esparru berrira egokitzeko prozesua. Nabarmentzekoa da, orobat, klima-arriskuak aztertu eta integratzeko eskura dauden datuak hobetzeko ahalegin etengabea.

Halaber, aipagarria da klima-arriskuen bero-maparen barruan egingo den bilakaera, zorroaren analisi sofistikatuagoa eta ikuskapen-aurreikuspenen arabera egiteko. Bilakaera horrek barne hartuko ditu biodibertsitate-arriskuak, agertoki berriak (*orderly* eta *disorderly*) eta arrisku fisikoak.

2024an, materialtasun bikoitzeko analisia egingo da, CSRD informazio ez-finantzarioaren zuzentaraua betez. Klima-aldaketa LABORAL Kutxarentzat duen inpaktuaren aldagaia izango da analisi horren elementu nagusietako bat. Prozesuaren ondorioak hurrengo txostenetan azalduko dira, eta ezagutarazi beharreko alderdiak zehazteko erabiliko dira.

5.2 KLIMARI LOTUTAKO EKIMENAK

LABORAL Kutxak TCFDrekin eta TNFDrekin osagarriak diren hainbat ekimen eta txostenetan hartzen du parte:

- Lantalde batzuetan, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen sinatzailea den aldetik.
- Basque Ecodesign Centerren proiektuetan.
- Jasangarritasun Txostena egiten.
- Zuhurtziazko Garrantziko Txostena (III. zutabea) egiten.